



3- FUNTSEZKO ELKARTEAK

TUSSI edalontzia sortzeko beharko degun materiala nagusia plastikoa da. Material hau, Plastigaur enpresari erosiko dizkiogu, izan ere, Plastigaur haien produktuei ekodiseñua eransten diete haien material eta produktuei, birziklazioa errazteko eta produktuaren iraunkortasuna hobetzeko helburuarekin. Produktua material horretaz egin ezekero garestiagoa aterako da, baina gure bezeroentzat eta ingurumenarentzat kalitate oneko produktuak eskaini nahi ditugu. Hala eta guztiz ere, Plastigaur enpresak, kantitate handiko erosketak egiten baldin baditugu, hau da, 300+ eskaera egin ezker, deskontuak egingo dizkigute, zehazki %20ko deskontua.



Bestalde, TUSSi ren azpialdean kokatuta egongo den erreaktibo sortuko duen enpresa batekin kolaboratuko dugu. Enpresa honek, drogekin erreakzionatuko duen eta ondorioz beroa sortuko duen materia espezifiko bilatuko dute. Kolaborazio honen helburua da, alde batetik, guk zer materia edo erreaktibo behar dugun jakitea, eta bestetik, enpresa inbestigazio lan bat edukitzea. Gainera, gure produktuaren salmenten %15ko etekina haienentzat izango da. Horretaz aparte, nahiz eta TUSSi ren diseinua gure esku egon, enpresa honen laguntzaz baliatuko gara gure produktua efektiboagoa izan dezan, eta gero Plastigaur enpresatik erositako basoetan txertatu ahal izateko modu praktikoa batean, lan hori Plastigaur enpresaren esku utziko dugu, hau da, haiek enkargatuko dira basoaren barruko forroaz eransteaz.

Horrez gain, produktuaren garraioari dagokionez, Avandia Transportes enpresaren zerbitzuak kontratatuko ditugu. Haien prezio-kalitate erlazioa ona izateaz gain, zuzeneko informazioa emten dute momenturo produktuaren egoerari buruz, hau da, arazorik egotekotan seguituan jakingo genuke. Enpresa hau inguru nazionalen bakarrik transportatzen ditu produktuak, izan ere, guk bakarrik Espania mailan salduko ditugu gure produktuak. Gainera haien transportazio aereo edo lurrekoa izan daiteke, beraz, modu azkarrago batean entregatu ditzakete gure produktuak gure nahien arabera.